

MUTILOAKO UDALA

2017ko ABENDUAK 26ko OHIKO BILKURA

LEKUA: Mutiloako Udaletxeko Batzar Aretoa

DATA: Bi Mila eta hamazazpiko abenduak hogeita sei.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Iñaki Ugalde Alustiza.

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Jule Aranburu Mariezkurrena.
Asier Aguirre Murguiondo.
Erkuden Aguirre Arruabarrena.

EZ BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Julen Zabala Garcia.
Xabier Aranburu Altuna.
Ion Mujika Perez.

IDAZKARIA:

Iñaki Alonso Antolín.

BATZARRA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehenengoa

HASIERA ORDUA: Eguerdiko ordubatak.

AMAIERA ORDUA: Eguerdiko ordubat terdiak.


1.- Aurreko aktaren onespena.

Lehenik, eta aurreko Bilkurako akta irakurri ondoren, 2017-11-14 ohikoa aho batez onartzen da.

2.- Fakturen onarpena.

Jarraian faktura eta dirulaguntza hauek onesten dira:

| ZKIA | KONZEPTU | ZENBATEKOA |
|------|---|------------|
| 1 | GOIUR: FRONTOIKO ALDAGELAK | 30.422,52 |
| 2 | TXERRI GORRI ELKARTEA: DIRULAGUNTZA | 300,00 |
| 3 | CORREOS: POSTA KUOTAK | 18,74 |
| 4 | G.A.O.: IRAGARKIA | 120,78 |
| 5 | ARRATE IRRATIA: TXERRI AZOKA PUBLIZITATEA | 205,70 |
| 6 | MATTIN: FAROLA ALDAKETA | 1.450,44 |
| 7 | MATTIN: ERROTATXON FAROLAK JARTZEA | 1.159,60 |




MUTILOA UDALA

| | | |
|----|---|-----------|
| 8 | BERRI LANTEGIA: MATERIALAK | 61,50 |
| 9 | SEGURA IRRATIA: TXERRI AZOKAKO PUBLIZITATEA | 157,30 |
| 10 | ILARKI: ETXEZ ETXeko ZERBITZUA | 1.545,60 |
| 11 | GOIERRI TELEBISTA. TXERRI AZOKA PUBLIZITATEA | 384,78 |
| 12 | IZFE: KOSTO INFORMATIKOAK | 1.394,07 |
| 13 | GOIERRIALDEA: JUBILATUEN TXANGOIA | 407,00 |
| 14 | GOIEKI: EKARPENA | 2.699,04 |
| 15 | GOIERRI FUNDAZIOA: EKARPENA | 1.934,00 |
| 16 | GRAFICAS USURBE: TXERRI AZOKAKO KARTELA | 677,60 |
| 17 | EUSKADI IRRATIA: TXERRI AZOKAKO PUBLIZI | 232,03 |
| 18 | EUSKADI IRRATIA: TXERRI AZOKAKO PUBLIZI | 335,70 |
| 19 | GOIERRIKO HEDABIDEAK: TXERRI AZOKAKO PUBLI | 300,08 |
| 20 | URRUÑA IKASTOLA: DIRULAGUNTZA | 60,00 |
| 21 | ARANTZAZU LIZARRALDE: ESKULANAK | 935,09 |
| 22 | LANDARRI: HILERRIAN EGINDAKO LANAK | 17.242,50 |
| 23 | LANDARRI: HILERRIKO ZERBITZUA | 305,53 |
| 24 | OIANGU BERRI: EMANDAKO ZERBITZUAK | 64,90 |
| 25 | GIPUZKOAKO MENDIZALE FEDERA: Prko PANELAK | 2.904,00 |
| 26 | AZTIBEGI ELKARTEA: TXERRI AZOKAKO PUBLIZIT | 150,00 |
| 27 | TOMAS BOSQUE: ARDOEN KATA | 294,27 |
| 28 | OIHAN: MUTILOA-GABIRIA BIDEAREN TXOSTENA | 1.815,00 |
| 29 | VAQUERO: OSTATUN EGINDAKO LANAK | 142,18 |
| 30 | KOROSTEL: UR AKOMETIDA | 3.460,37 |
| 31 | LAZKAOKO BENEDITARREN FUNDAZIOA: DIRULAGUNTZA | 60,00 |
| 32 | JESUS M. DEBA: TXERRI AZOKAKO EKOIZKINAK | 330,59 |
| 33 | OIANGU BERRI: EMANDAKO ZERBITZUAK | 55,50 |

3.-Etxez-etxeko laguntza zerbitzuko esleipena.

Jarraian eta etxez etxeko laguntza zerbitzua esleitzeko publizitaterik gabeko prozedura itunduta jarraitu da. Hiru enpresei egin zien gonbidapena: Ilarki, Arreta eta G.S.R.. Azkeneko honek ez du eskaintzarik aurkeztu. Ilarki eta Arretak aurkeztutako eskaintzak ikusita eta negoziazioa egin ondoren Ilarki Elkarteak egin du eskaintzarik hoberena. Hau gutzia ikusita Osoko Bilkura honen aho batez onartzen du:



MUTILOA UDALA

1. Udal etxez etxeko laguntza zerbitzua kontratua ILARKI ELKARTEAri esleitzea. Kontratuaren orduko prezioa 18,05€ (BEZan salbuetsita dago) eta kontratua burutzeko epea bi urtekoa 2018-01-01an hasita beti ere, administrazio-baldintza zehatzen orrian eta esleipendunaren proposamenean zehaztutakoen menpe.

2. Esleipendunak bere proposamenean aurkeztutako aukerak, aldaketak edo hobekuntza guztiak onartzea.

3.- Kontratua administrazio-agiri bidez formalizatzeko Alkateari ahalmena ematea.

4.-Meategiko pista konponketaren esleipena.

Jarraian Alkateak hitza hartzen du adierazteko Meategiko pista konpontzeko bi aurrekontu eskatu ditugula: "Gabiri S.L." eta "Artetxe Hondalanak" enpresei. Bietatik merkeena "Gabiri S.L." ek aurkeztutakoa da. 4.140 €tan gei B.E.Z.a, hain zuzen ere.

Hau guztia kontutan hartuta eta kontratu txikia izanik obra hau "Gabiri S.L." enpresari esleitzea aho batez onartzen da.

5.-Lierniko urbanizazioaren esleipena.

Alkateak hitzarekin jarraitzen du adierazteko Lierniko urbanizazioa egiteko hiru aurrekontu eskatu ditugula: "Gabiri S.L." "Goiur" eta "Artetxe Hondalanak" enpresei. Hiruetatik merkeena "Gabiri S.L." ek aurkeztutakoa da. 45.451 €tan gei B.E.Z.a, hain zuzen ere.

Hau guztia kontutan hartuta eta kontratu txikia izanik obra hau "Gabiri S.L." enpresari esleitzea aho batez onartzen da.


6.- Lanbideko peoiaren kontratazioa.

Segidan eta Lanbideak enplegua sustatzeko 2017ko programaren barruan langile baten kontratazioa onartu du baldintza hauekin:

- Kontratazioa sei hilabeterako izango da.
- Kontratazioaren data 2017ko abenduaren 29tik, 2018ko ekainaren 28ra.
- Lanbidek onartutako dirulaguntza: 12.500 €

7.- Galde-erreguak.

Ez daude.



MUTILOA UDALA

Eztabaidatzeko gai gehiago ez dagoenez, Bilkura amaitutzat ematen da eguerdiko ordubateko direnean eta horren sendespena, nik, Idazkariak egiten dut.